

Hurrengo taulan ikus ditzakezun tamainak orain aztertzen ari garen euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko inkestan erabilitako laginarenak dira:

Familian erabiltzen den hizkuntza, hizkuntza-eremuaren eta sexuaren arabera (% bertikala). 2006

	Euskal Herria			Euskal AE			Nafarroa			Iparraldea		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
GUZTIRA (%)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	2.516	1.251	1.265	1.624	797	827	575	290	285	317	164	153
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU AMAREKIN?												
Batez ere euskaraz	47	50	45	47	50	45	38	39	37	62	64	61
Euskaraz nahiz gaztelaniaz/frantsesez	5	5	6	5	4	6	7	8	5	11	11	10
Batez ere gaztelaniaz/frantsesez	47	46	49	48	46	49	55	53	57	27	25	30

❖ Kasu bakoitzean laginak duen balioa kontuan hartuta, kalkula itzazu honakoek zein balio absolutu duten:

“Amarekin batez ere euskaraz hitz egiten dutela” esan duten Nafarroako emakume guztiak.

.....

“Amarekin batez ere gaztelaniaz/frantsesez hitz egiten dutela” esan duten Iparraldeko gizon guztiak.

.....

“Amarekin euskaraz nahiz gaztelaniaz/frantsesez hitz egiten dutela” esan duten Euskal AEko gizon guztiak.

.....

“Amarekin euskaraz nahiz gaztelaniaz/frantsesez hitz egiten dutela” esan duten Euskal Herriko gizon guztiak.

.....
